

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko urriaren 13ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru Dekretua:**

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 66/2016 Foru Dekretua, urriaren 13koa, onartzen duena Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren antolamendu eta funtzionamendu arautegia.

– **Erabakiak:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Diputatuen Kontseiluaren 653/2016 Erabakia, urriaren 13koa, Data Base Storage SL – Omega Peripherals enpresari esleitzen diona, 3 urterako, segurtasun kopien plataforma komunerako backup software lizentziaz hornitu eta haiek mantentzeko zerbitzu emailea homologatzeko esparru akordioa.

Diputatuen Kontseiluaren 654/2016 Erabakia, urriaren 13koa, urriaren 13koa, onartzen duena, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, aldundi honetan instalaturiko ARC produktuen baimenak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea. Kontratuaren balioa gutxi gorabehera (BEZa aparte): 206.400 euro; gauatzeko epea: 2017/01/01etik 2020/12/31ra; 2017rako lizitazio oinarria: 61.436 euro (BEZa barne).

Diputatuen Kontseiluaren 655/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, 2017-2019 aldirako foru aldundi honetako minifram plataforma teknologikoa errentan ematea kontratatzeko espedientea. Balioa gutxi gorabehera (BEZa aparte): 9.650.000,04 euro, eta 2017rako lizitazio oinarria, gehienez ere: 3.892.166,68 euro (BEZa barne).

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 656/2016 Erabakia, urriaren 13koa, berretsi egiten duena diputatu nagusiaren urriaren 6ko 282/2016 Foru Dekretua, sozietate anonimo batek 518/2015 zenbakiko konkurtsu prozeduraren barruan proposatutako hartzekodunen hitzarmena onartzen duena.

Diputatuen Kontseiluaren 657/2016 Erabakia, urriaren 13koa, berretsi egiten duena diputatu nagusiaren urriaren 6ko 283/2016 Foru Dekretua, sozietate anonimo batek 518/2015 zenbakiko konkurtsu prozeduraren barruan proposatutako hartzekodunen hitzarmena onartzen duena.

Diputatuen Kontseiluaren 658/2016 Erabakia, urriaren 13koa, behin betiko onartzen duena ondasun higiezin gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa Gasteizko udalerrriaren barruan, ezaugarri berezietako ondasun higiezin (EBOH) gisa kalifikatuta dagoen Forondako aireportuari dagokionez.

Diputatuen Kontseiluaren 659/2016 Erabakia, urriaren 13koa, handitu egiten duena 2016rako kreditu esleipena Indra Bpo Servicios SLU enpresaren alde, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen laguntza espedienteak digitalizatzeko zerbitzua emateko.

Diputatuen Kontseiluaren 660/2016 Erabakia, urriaren 13koa, baliozkotzen duena GOFEK egin duen eta Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuaren eragozpen txostena izan duen egintza bat.

Diputatuen Kontseiluaren 661/2016 Erabakia, urriaren 13koa, baliozkotzen duena Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila egin duen eta Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzuaren eragozpen txostena izan duen egintza bat.

Diputatuen Kontseiluaren 662/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena 143/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 13.022,72 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Ereiteko patata baztertua" partida, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, birosiagatik baztertutako ereiteko patata ekoizten den zonetan arriskuak arintzeko laguntza deialdirako kreditu erreserba handitzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 663/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eskaturik, kreditu transferentziako 149/2016 espedientea, 500.000 euroko zenbatekoarekin, funtsez hornitzeko "Desjabetzeak" izeneko partida, zenbait desjabetze prozedurari erantzuteko.

Diputatuen Kontseiluaren 664/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eskaturik, kreditu transferentziako 151/2016 espedientea, 30.017,50 euroko zenbatekoarekin, funtsez hornitzeko "informazio eta zabalkunde gastuak" izeneko partida, turismoa sustatzeko argitalpenak eta materiala ingelesez eta frantsesez edukitzeko.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 665/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena Gasteizko Udalarekin hitzarmena sinatzea, 20.000 biztanle baino gutxiagoko lurralde historiko honetako udalerrietatik datozen pertsonen sarbidea izan dezaten genero indarkeriaren biktimentzako zuzeneko harrera zentroan.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 666/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena gehigarri bat eranstea Arabako Errioxako Upategien Elkartearekin (ABRA) izenpetutako hitzarmenari.

Diputatuen Kontseiluaren 667/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena 333 partzuergoa eratzea Zuhatsu Donemiliagako Administrazioarekin eta 334 partzuergoa Billodako Administrazio Batzarrarekin, eta 319 partzuergoa handitzea Guardiako Udalarekin; halaber, onartzen ditu "Basoa itxuraberritzea higitzeko arriskuan dauden hainbat menditan", loteka eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, kontratatzeko proiektua eta espedientea, 94.579,09 euroko zenbatekoaz (BEZa barne) eta 3 hilabeteko gauzatze epearekin.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 668/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena ekarpen osagarriak egitea martxoaren 15eko 138/2016 Erabakiaren bidez onartutako lankidetzaren hitzarmena erakunde laguntzaile gisa izenpetu duten Arabako kirol federazioei.